

Martutene

Irutxulo

martuteneko BHI institutua 1990ean hasi zen Sheffield eta Baionako ikastetxeekin ikasle trukaketak egiten. Geroztik, bide hau indartu eta aukera ere zabaldu egin du. Aurten Lanbide Heziketak hamazazpi ikasle izan dira Europako lau herrialdetan, ikasketak zabaltzen edota lan mundua gertutik ezagutzen. Zehatz mehatz, Erresuma Batuko Sheffielden, Suediako Börlangen, Ipar Irlandako Derryn eta Italiako Vicenzan izan dira. Praktika tarterik laburrena lau astekoa izan da eta luzeena, hamabikoa. Leonardo Da Vinci programak, Eusko Jaurlaritzak, Kutxak eta Confebask enpresari elkarteak diruz lagundu dituzte ikasleen egonaldia.

Jon Leiza hogeituro urteko donostiarra Suedian egon da: *“martxotik apirilera arte izan naiz han, industria ekipamenduaren mantenimenduan lanean”*. Jonen esanetan, egonaldiaren emaitza ona izan da: *“oso ondo portatu dira nirekin eta asko ikasi dut. Izan ere, Suedian hemen baino askoz aurreratuago daude arlo horretan. Hemen erabiltzen ez diren makinak aspalditik erabiltzen dituzte herrialde hartan”*.

Hizkuntza eta turismoa

Herrialde hauetan izan direnean, ikasleek hizkuntz ikastaroetan ere parte hartu dute. Guztiek ingeles klaseak eman dituzte, Italian egondakoek izan ezik, italiara

Europarekin harreman zuzena

Martuteneko Bigarren Hezkuntza Institutua aitzindaria da ikasleei European lan praktikak egitea eskaintzeko proiektuetan. Duela hamar urte ekin zion bide horri eta aurten bertako hamazazpi ikasle aritu dira Erresuma Batuko, Suediako edota Italiako enpresa eta ikastetxeetan.



Martuteneko institutuan garrantzi handia ematen zaie ikasle trukaketei.

ikasleak dute eta. Turismoa egiteko tartea ere izan dute, jakina, eta Londres, Estokolmo, Belfast edo Venezia ezagutzeko aukera izan dute.

Dena den, Martuteneko institutuak Europarekin dituen harremanak ez dira praktika hauetara mugatzen. Izan ere, Vicenzako sei ikasle gure artean izan dira aurten. *“Aitortu beharra dago kultur ezberdintasunak direla eta,*

Aurten hamazazpi ikasle Europako herrialdeetan egon dira

zenbait arazo izan direla, baina hala ere, esperientzia

aberatsa izan da”, adierazi digute Martuteneko institutuko arduradunek.

Etorkizunari begira, Martuteneko BHI institutuak harreman sarea zabaldu nahi du beste herrialde batzuetan. Ildo honetatik, Institutoko arduradunek Gales, Ingalaterra, Errumania eta Txekiako ikastetxeekin elkarlan hitzarmenak egiteko asmoa dute..